



Beasaingo Institutuak 25 urte

Nolako Etxea
amesten duzu?



**ETXEBIZITZA UNIFAMILIARREN BI PROIEKTU
HASTERA GOAZ GOIERRI BAILARAN**

⇒ SAR ZAITEZ HASIERATIK GUREKIN

- Zure etxebizitza diseinatzeko
- Pisu bat baino merkeago aterako zaizu

ZALDIBIA

Tfonoak: 88 64 35 - 16 00 89

Faxa: 88 93 07

CONSTRUCCIONES  ERAIKUNTZA
ZALDIBI



AMPO S.COOP B.L.
IDIAZABAL Gipuzkoa

ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onartutako enpresa

ISO 9002 Tel.: 80 14 42 - Faxa: 80 18 62




AMPO S.COOP R.L.
BEASAIN Gipuzkoa

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
 - Bertan, 2 "diámetro duten balbuletati 48" arterainokoak egiten dira.
 - Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
 - Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENAGAS, GAS EUSKADI.
- Tel.: 88 60 50 — Faxa: 88 88 47

 **Fotokonposaketa** lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

45. zenbakia. 94.eko apirilak 15. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre, Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Argider Mujika, Joxe Begiristain, Gurutze Aldabe, Estitxu Imaz, Aitor Calvillo, Nekane Altuna, Gabino Murua, Xabier Glez. Ezama, Nagore Goiburu, Aloña Galarraga, Aramtxa Goiburu, Iñaki Amundarain, Emeterio Sorazu eta Jaime Leturia.

Azala eta zenbait argazki: Dioni
Fotokonposaketa eta maketazioa:



GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



23. musika: Izurri Berria, rokanrol berria

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Beasain eta Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: "Txindoki" edo "Narrunarri"?

9. besteek esana, inkesta: Zer egin duzu Aste Santuan?

10. Goierriko berri: Aralar Parke Naturala

12. Beasaingo Txindoki Institutuak 25 urte

14. hemen eta orain: "Biolor" Gipuzkoa

15. herriz herri: Lazkao, Olaberria, Ataun, Idiazabal, Beasain, Zegama, Gabiria, Ormaiztegi, Legorreta eta Ordizia

22. kirola: Ordiziako Saskibaloi Taldea

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasotu du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

Erljio Katolikoari uko

Kaixo, zer moduz? E.H.G.A.M. gaituz: Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimendua. Erljio katolikoaren ukamena dela eta, datorren egunetan Gipuzkoan aurrera eramango dugun kanpainaren berri eman nahi genizuen. Hau da, ofizialki katolikoa izan eta edozein puntutan Vaticanoko doktrinarekin ados ez dagoen edozeinek, Elizatik kanpo geratzeko erabakia eliz jerarkiari jakinarazi behar diola.

Kode Kanoniko Zuzenbidean oinarriturik, honoko ondorioak ditu apostasia edo Erljio Katolikoaren ukamena: Kristau fedeari ezezko borobila; ezin izango da inoiz ordenu sakramentalak jaso; ezin izango du elizatik ezkondu; hil aurretiko elizkizunik ez zaio emango, aurretik damu zeinurik ez bada eman; fede katolikoaren kontrako arrazoiak medio, gorpua erraustea ukatuko zaio; hil ondorengo elizkizunak ere ukatuak izango ditu; beste batzuen artean, Kode Kanonikoaren 220. kanonak honakoa dio: "Inork ez dauka, zilegi ez den modu batez, eskubiderik besteen fama ona bortxatzeko edota bakoitzaren intimitatea zauritzeko"; beraz, apostata egitean (ukamena aurkeztean), erabaki hori apaizaren, eskatzailearen eta apezpikutzaren artean gelditu behar du, edo gelditu beharko luke.

Modu batera edo bestera, Elizak bere gizartearekiko jarrera aldatzea da gure helburua, izan ere bere utzikeriari esker diru publikoaren kontura dirulaguntza ederrak eskuratzen ditu. Elizak alor askotan erabilitako politika ezkorra ikertu dugu, batez ere gizarte mailan: gerrak, hilketak eta bazterketak indartu eta norberaren askatasunaren

aurka erasotzen du; hain garrantzitsuak diren sexu eta harreman afektiboak; emakumeak elizbarrutian jasan duen eta jasaten duen bazterketa ahaztu gabe (abortoa, antisorgailuak, ezkontzatik kanpoko erlazioak, lesbianismoa, e.a.) eta katezismo berriaren eta Fedearen doktrinaren elkarketari buruzko idatzia jasanezinak juzgatzen ditugu.

E.H.G.A.M. - Gipuzkoa

Zirkoa, zirkoa dator!

Hauteskundearen aurrean botorik ez ematea, abstentzioa omen da axolagabekeria eta pasotismoaren seinalerik argiena. Hori dio bederen hauteskundearako bizi den hainbat politikok. Nahiz eta eztabaidagarria izan, ni ez naiz gaur abstentzioa eta botoa baloratzaren hasiko, zer den ona eta zer den txarra, zer egin behar den eta zer ez... Baina, pentsa dezagun botoa ematea erabaki, honi ala hai berdin da, eta eman egiten dudala: alderdi politiko zein politikari batzuei nere konfidantza adierazten eta negatiboki erabakitzeko eskubidea ematen diet.

Gatozen hauteskunde guztien artean gehien interesatu beharko litzaizkigukeenetara, gertuko ditugunetara, Udal hauteskundetara. Ondo pentsatu ondoren alderdi politiko zein hautagai konkretu bati gure botoa eman eta denon artean agintea izango duen lantalde bat osatuko dugu: alkatea eta zinegotziak (talde politiko honetako zein hartakoak). Hautatzen dugun taldea hautatzen dugula, hor bukatzen al da gure lana? Hainbestekoa al da aukeratuak izan diren hoiengan dugun konfidantza, herrian egingo duten lana nola

egiten duten jakitea ere ez zaigula interesatzen? Alderdi Batzar Orokorretan hartzen dituzten erabakiak komunikabideen bitartez jakin eta nahikoa al dugu?

Ba ez dakizue, askok behintzat ez, ze datu eta informazio interesgarria jasotzen den Osoko Bilkuretan, Plenoetan. Han ikusten da nor den demokratiko, nor lotsagabea, nor gezurtia, nor heldua, nor umea (barkatu umeok, zuek baino arrazoiak eta burua askoz ere gutxiago erabiltzen dutenak dira eta asko...), nork dakien hitz egiten, nork buila ateratzen, nork zaunka egiten, nork hitz gozo baina pozointsuez engainatzen, nork dakien euskaraz eta nork ez (non da gure kultura?)... Gogorra da hamaika astakeria entzun eta ixil-ixilik denak entzuten egon beharra, odolak txartzen dira; baina aldi berean zein den aberatsa eta interesgarria nola jokatzaren duen agintea duenak eta nola oposizioak ikustea!

Bilera hoiek, Plenoak, irekiak dira entzule bezala joateko, ez ahots eta ez boto alegia, eta gonbitea luzatu nahi nizueke guztioi "zirko" hoietara azaldu, dohain "lehoiak" hitzezko "borrokan" ikusi eta entzun eta bide batez herriko gorabeheren berri jakitera animatzeko. Lazkaon, hileko azken ostegunetan bildu ohi dira, arratseko 8etan. Ikusi eta entzun ondoren askoz ere errazagoa izango zaigu batekin zein bestearekin identifikatu eta hurrengo hauteskundetan botoa ematea, baldin eta botoa ematea erabakitzen badugu... Kanpainan erabiltzen diren diruak ere aurreratu egingo genituzke.

Antzarra

Arkupe

Tapizteria

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai ohiak
Toailak - Gortinak eta osagarriak
Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

☎ 88 00 84

ALTZAGARATE JATETXEA

■ Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
■ Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfonoa

ALTZAGA

ATERPE TABERNA

ARTE ERAKUSKETA ARETOA

Porteria auzoa
☎ 884666

BEASAIN

Intereseke Telefonoak

Mutiloa

Udaletxea:801285

Tfno. publikoa:801166

Olaberria

Udaletxea:881434

Eskolak:881232

Castillo Hotela:882011

Tfno. publikoa:881111

Ormaiztegi

Udaletxea:882660

Anbulategia:888432

Segura

Udaletxea:801006

Anbulategia:801919

Eskolak:801776

Hospitala:801041

Zegama

Udaletxea:801115

Anbulategia:801351

Eskolak:800042

Zerain

Udaletxea:801724

Medikua:801136

Tfno. publikoa:801183

Errezeta



Teresita Sarasolak
emana

Imaz jatetxea

Segura

UNTXIA PIPER TXORI-SEROAREKIN

Osagaiak (4 lagunen-tzat): Untxi 1, tipula 1, 4 baratzuri ale, 4 piper txorisero, baso bat ardo beltza, 3 kutxarada hirin eta lio ona.

Olio berotu baratzuri ale batekin, untxia puskatuta bota honera eta ondo gorritu. Ondoren tipula eta beste baratzurik bota. Piperrak

egosi 3 bat minutuetan, mami apartatu eta txikitu. Mami hau katilu batetan nahastu 3 bat hirin kutxaradarekin, salda pixka bat botaz. Ondoren, ardoarekin batera untxiaren gainera bota, baita ere salda pixka bat. Hone-lu eduki irakiten ordu t'erdibat gutxi gora behera, ondoren mahairatu.

Bota bertsoa



Xabier Narbarte

Gaia: Lazkao Txiki

(Urtebete hil zela)

Urtebete bat bete ondoren bertsotan nola aitortu zure itzala zure bertsoa daudela gugandik gertu, Goierrik eta GOIERRITARRAK inola ezin baztertu. Halere ezin eskertu bertsoak maixu zu zaitu, heriotz batek ezin ditzazke gauzak zeharo aldatu hemen bazina bezala nahi dut zure izena aipatu.

Zure bertsoak, zure txistek eta ateraldi finak, zure barneko sentimenduak sarritan bertso eginak, zuk zenituen bare aldiak zure olatu gordinak, bi aurpegi desberdinak sarritan ulertezinak oraindik neri zer pentsatua eman dit zure imajinak, zirrara hori berez sortzen du bertsolaririk haundinak



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

Egunkaria -REN aldeko

ANTIGUAKO IV. KROSA

GOIZEKO 11etan

APIRILAK 24

KUOTA: 1.000 pzta / 50 libera

INSKRIPZIO EPEA:

Apirilaren 11tik 21era

INSKRIPZIO PUNTUAK:

Urrutia Kirolak (Beasain)

Josetxo Sport (Ordizia)

La Caixa sukurtsaletan

Korrikalari guztiei kamixeta bana oparituko zaie, eta BI BIDAIA zozketatuko dira

KELER

"La Caixa" KIROLAREKIN

T	▲	A
M	PA	A
Y	PEL	O

- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2

Tfnoa: 88 89 80

ORDIZIA

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAn. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Informatika ikastaroak ematen dira Lazkaon. 882174, Jose Luis.

Salerosketak

□Eskuz eginiko kutxa salgai dago. Luzeran metro 1 eta zabalera 40 zm. ditu. Salneurri onean. Deitu 161620 tfnora.

Etxebizitzak

□Mutil batek pertsona bat behar du alokatutako pisu bat konpartitzeko Ordizian. Dei GOIERRITARRAra: 889612.

□Pisu eraiki berria dut Beasainen alokatzeko. 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela, berogailua eta ur beroa gas naturalez, tarteka amoblaturik. Tfnua.: 884954.

□Pisu bat alokatu nahi dut Beasainen. Amoblaturik. Letatik 3etara dei: 881417.

□Ordiziako Altamira auzoan guztiz amoblaturiko etxebizitza eguzkitsua alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua dituelarik. Interesatuak dei dezatela 885130 telefonora.

□BEASAIN. Txindoki Institutuaren 25. urteurrena. Erakusketak: 17ra bitarte argazkiak: Beasain orain 25 urte; **apirilak 29tik maiatzak 8ra** Kultur Etxean Juan Ayesta, Victor Bartolome, Josetxo Beristain, Usua Gabarain, Jorge Garcia, Rosa Gullon, Jesus Lopez Zulueta, Juanan Luna, Jabier Soto eta Jokin Telleria Goierriko pintoreak. **Kontzertuak: apirilak 29**, Parrokian Andra Mari Korala eta **maiatzak 6** udaletxe azpian Institutuko musika taldeak. **Audiobisualak eta hitzaldiak Institutuan, 16,30etan: apirilak 18an**, Luisi Gonzalez: Mendiko kirolak eta Gipuzkoako bidetxurak; **19an**, Birginia Imaz: Modelu klontrapublizitaria; **21an**, Amaia Aranzabal: Cho-Oyura igoera; **Udaletxean, 19,00etan: 25ean**, Ferran Mikel: Erreforma-ren markoa; **26ean**, David Urzainqui: Batxilergoak; **28an**, Raimundo Rubio: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

□ORDIZIA. **Apirilak 22ra bitartean** Luisi Velezen pintura-erakusketa eta baita Ekokonsum-en

erakusketa Barrenan. **28tik aurrera** Inma Alkorta eta Pilar Aramendiren pinturak.

□"Emakumeen iragana eta oraina bide berriak urratzen" hitzaldi saioak EPA-ren aretoan: **apirilak 19a**, asteartea: Gizartea aldatzeko orduan emakumeek duten garrantzia, Margaret Bullenen eskutik; **22a**, ostirala: Pobreen artean gero eta emakume gehiago, Blanca Fernandez eta Sara Osinagaren esku.

□Ihardunaldi Internazionalistak. **Mahai-inguruak: 20an**, 8etan, Ordiziako Barrenan, Elkartasuna European eta Europarekin, Korsika, Irlanda eta Euskadiko partaideak; **22an** Beasainen, 8etan, Kultur Etxean, Merkataritza alternatiboa eta solidarioa, ONG, SODEPAZ,... **Hitzaldiak: 28an**, Beasaingo Kultur etxean 8etan, Nazionalismoa edo/eta Internazionalismoa, Iñaki Gil de San Vicente. **Bideo erakusketak: Ataun**, apirilak 26tik maiatzak 1era, Irlanda; **Zaldibia**, apirilak 19tik 24ra, Palestina.

Ordizia/Beasaingo Goardiako botikak:

□**Apirilak 16-17**: Urbizu; **18**: Arriola; **19**: Urbizu; **20**: Atorrasagasti; **21**: Azpikueta; **22**: Jauregi; **23-24-25**: Lournaga; **26**: Cuesta; **27**: Arriola; **28**: Urbizu; **29**: Atorrasagasti.

Ordiziako Herri Antzokia:

Ostirala 15: "Atrapado por su pasado" (10,15); **Larunbata 16**: "Orlando" (7,30-10,15); **Igandea 17**: "Atrapado por su pasado" (7,30-10,15); **Astelehena 18**: "Atrapado por su pasado" (7,30)

Mendizaleak:

Ordiziako Mendizaleak: apirilak 17: Iranzu-Urederra-Urba; **24**: Quifosa-Igaratza-Intza.

Beasaingo Aitzgorri M.E.a: apirilak 17: Kakueta (924 m.), Tren Mueseolari bixita; **24**: Pagoeta (714 m.).

Idiazabal K.E.: apirilak 24: Larrunarri (ertza eskalatzea ala ohizko igoera, 8,00etan irteera).

Pausogaizto Goierriko Mendizaleak: apirilak 23-24: 2 egun Apellanizen (puenting-a barne).



TXERTAKADI SAGARDOTEGIA

- Norberak haragia eman ezkerore ere prestatuko zaio
- Eguerdietan ere emango da aurrez abixatu ezkerore, 884798 tfnora Bixita gaitzazu!

Urtesabel Auzoa

ZALDIBIA

☎ 16 13 59

▼ Ordiziako azken azoka ▼



Bertako produktuak. No-bedadeak: Onttoak, 5 kilo, 4.000 pzta. Harriteak baba hondatu du, ez da azaldu beraz. **Abereak:** Arkuma (108 buru), 400-475 pzta.-k. **Landarak:** tipula, 250 zientoa; letxua, 590 zientoa; tomatea, 30-40 takoa; baina, 20 takoa. **Barazkiak:** azalora 75-150 bakoitza; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; baratzuri freskoa 75-100 x.; borraja, espina-ka, zainhoria, 50-75 x.; babarruna beltza 700-900 k.; babarrun gorri eta txuria, 400-600; letxua 40-80 b.; kalabaza 125-200 k.; patata 40-50 k.; porrua 85-100 x; **Kanpoko produktuak:**

banana 225-250; kiwia 175-200; laranja 95-195; limoia 150; sagarra 110-195; udara 175-225. **Kanpoko barazkiak:** azalora 150; baba 150; horburua 250 dozena; Ilarra 350 k.; patata 50 k.; patata berria, 80-85; piper-gorria 425-475; berdea 325; tomatea 250; fre-soia, 200-225. **Arrainak:** bertako antxoa 950; antxoila 1.620; bakailaua, bixigua, 1.250; izokina 1.300; kariokita 1.650; mediana 2.100; perlita 420; sardina 520; txitxarroa 480-950; zapoa 1.280.

Gurutze Aldabe

Deialdiak



□ "Zaldibiako etnografia" (400 pzta) eta "Txirrindularitza Zaldibian (1932-1993)" (250 pzta) salgai daude herri horretako denda eta tabernetan. Mogitu agortu baino lehen!

□ 4. urtez, E.H.ri buruzko ikerketa historikoa bultzatzeari jarraituz, ikerlanak sustatzeko laguntza ekonomikoa eskeintzen du Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa. Deialdian zaletu, ikasle edo espezialistek har dezakete parte. Maiatzak 21erako bidali behar dira proiektuak museo horretara. Dirulaguntza 280.000 pztakoa izango da. Argibide gehiago, 889900 telefonoan.

□ Donostiako Bagera euskaltzale-elkarteak apirilaren 24rako, 11etan, antolatuko du Egunkariaren aldeko Antiguako IV krosa. 10 km.ko ibilbidea izango da; izenematea Beasaingo Urrutia Kirolak eta Ordiziako Josetxo Sporten egin daiteke, 1.000 pzta.ren truke. Korrikalari guztiek izango dute beren saria.

□ Foru Aldundiko Udalekuak 94. Hiru talde: 7-8, 9-11 eta 12-13 urte bitartekoak. 7-13 urte bitarteko haurrentzako udalekuak zozketa bidez banatuko dira apirilak 27an. Zozketa horretan parte hartzeko, haurren izenemateak apirilak 22 arte Ordiziako Gazte Bulegoan egin daitezke, asteartetik ostiralera 9etatik 11etara eta 5etatik 7etara; larunbatetan 10etatik 13etara. Telefonoa: 160743.



BISITA ORDUAK
Larunbata: 11etatik, 14etara
16etatik, 18etara
Igandea: 11etatik, 14etara
Lanegunetan: 10,30etatik,
14,30etara, aurretik deituz.
☎ 80 17 24

MUNDUATE
Erlojutegia
100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA



Emeterio Sorazu
(Zaldibiako Erretorea)

**Zaldibitarrek,
oso
aspaldidanik
deitu izan diote
Narrunarri edo
Larrunarri**

Aldizkari honetan sarritan aurkitu naiz zenbait kultur datu kurio-soekin, eta hau benetan eskertzekoa da, bai gaurko kultur-maitaleentzat eta bai gure ondoren etorriko direnentzat. Garai bakoitzak berea esan dezala eta ez isildu. Honelako zerbait dakart lerro hauen bitartez. Nahiz neu jatorriz zaldibitarra ez izan, hemen daramaizkiten urteetan pertsona askotatik jaso izan dut espresio bat. Eta beronen esanahia agertzeraz nator ondoren.

Zaldibitarrek, oso aspaldidanik, Aralarko mendatearen amaieran dagoen mendi mutur berezi honi deitu izan diote *Narrunarri edo Larrunarri*. Eta ez *Txindoki* Gipuzkoako beste lekuetan ezagutzen den bezala. Eta nere galdera hau izan da: zein ote du bere jatorrizko izena: *Narrunarri edo Txindoki*?

Neuk jakina dudanez, mende hontako 1938-48 tartealdian, Zaldibiko aurrean dagoen mendi zoragarri honek bixitari asko eta asko izan zituen, mendi maitasunez hurbilduak. Hain zuzen, Donostiko mendizale

“Txindoki”? edo “Narrunarri”?

talde batek Aralar guzia pausoz- pauso ezagutu zuen luza-roan eta hainbat argazki eta toponimo atera ondoren, garai hartako egunkarian zenbait artikulatu idatzi ere bai. Eta artikulatu hauen izenburu orokorra “Txindoki” izenez agertu zuten. Eta ordutik honuntz, Gipuzkoako askok izen horrekin “ezagutu” izan dugu. Baina, zenbait artzaiekin gai hau komentatzean eta bertara joanda konprobatu ere bai, neuk berri hau dut jaso. Txindoki punta deitzen zaion azpian, Amezketako minetara dihoan bide txigor ondoan borda batek, mendizaleentzat oso ezaguna denak, Txindoki izena darama. Eta izen hau oso aspaldikoa da borda eta saroi leku honentzat. Ez ordea mendi muturrarentzat.

Beraz, zein da orduan, zaldibitarrek diotenez, mendi muturraren jator-izena?: *Narrunarri*. Eta izen hau nondik dator? Hara: Aralar aldera Larraizko magaletik oinez abiatzen garenean, Alotzako parajeetara, erdibidean goazelarik, ezker aldean geratzen zaigu mendi tontor hau; eta aurrez begiratzean, dena *arkaitza* agertzen zaigu. Ezeren zuhaitz eta zelai gabea. Giza hizkuntzez, bilutzik, esan genezake; eta horregatik, bere agerizko narrua edo larrua (azala) dena *harrizkoa* agertzen delako, beti deitu izan zaio *mendi muturrari* era honetan: *Narrunarri edo Larrunarri*, hau da: “Narrua, harrizkoa duen mendi muturra”. Eta Lazkaomendi deritzan parajetik ere begiratzen badiogu, esperientzi bera aurkituko dugu: “Dena harriz estalitako mendi muturra”.

Aranzadi elkarteak ateratako mendi-mapa zatian garbi ageri da hemen diodana. Ikasi dudana agertzen dut. Eta esanahi aberatsekoa derizkiot. Orain ikusten duenak esan ere esango dio: “*Narrunarri*, kaxo tontor polit!”



Tfona: 885500

ORDIZIA




ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Besteek esana

Kukuaren soinua

"Herriko nekazariak baratzeko lanean ilusioz beterik ari direla, izerdia lehortzeko aitzurra alde batera utzi eta poltsikotik mukizapia atera dutenean, burua zut, horra non entzun duten Amezti inguruko pinudi artetik datorren kukuaren ku-ku soinuua, udaberriaren eta bizi-pozaren berri eman nahirik. Eskuak poltsikora eramane eta 'beste batean izan beharko dik' berekiko pentsatuz aspaldiko esaera-zaharra datorkie burura: 'Andra Mari martxorako kukua azaltzen ez bada onrak egin'. Eta egutegiko orriak pixka bat astinduz konturatu dira zein leiala eta zuzena izan den aurtengoan ere hegazti miresgarri hori".

Gabino Muruak, "DV"n, 94-III-27.



Inkesta



Zer egin duzu Aste Santuan?



Pello Santos
idiazabaldarra,
22 urte, langabetua

Ez naiz inora joan, dagoeneko kontratua bukatu bazait ere, lanean aritu beharra izan dut. Ostirala bakarrik izan dut libre eta Ordiziara irten naiz. Libre izan banuen ere ez dut uste kanpora irtengo nintzatekenik, normalean ez naiz oporretara joateko zalea. Gustora ibiltzen naiz herrian.



Aitzol Mendizabal
idiazabaldarra
14 urte, ikaslea

Oporretan jolasean ibili nahiz. Herrian egon naiz kanpora atera gabe. Orain arte, inoiz ez naiz oporretara joan, ez bait zait bidaiatzea gustatzen. Inora joan gabe ere hemen ondo pasatzen dut egun guztia jolasean.



Olatz Lizarralde
idiazabaldarra
17 urte, ikaslea

Planik ez da atera eta egun batzuk pasatzera ez naiz inora joan. Hala ere ez nahiz geldia egon eta egun bateko bidaiak egin ditut, adibidez Soriara Laguna Negra ikustera. Gainontzean herria zaintzen egon nahiz. Kanpora udan ateratzen naiz normalean.

"GOIERRI DUT ANUNTZIO"

Zure denda, enpresa, zerbitzu, produktu e. a.-en berri emateko prest duzu GOIERRITARRA.



10.000 irakurle baino gehiago ditu Goierri guztian eta bertako bezeroei zuzen eta bizkor iristeko aproposena duzu.

DORRE ETXEA 1. 889612 Tfnoa. ORDIZIA

Zure propaganda herriko kronikan joan daiteke.



BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4
Tfnoa: 880406
ORDIZIA

Ba al dakizu...?




EHNE nekazal sindikatoaren "Ardatza" hamabostekariak eranskin mardul bat ekarri berri du bere orrietan. EHNEren iritziz, Aralarko Parke Naturalaren kasuan "eman den informazioa oso nahasia izan da eta baserritarra nahastu erazi eta mesfidantza handiagoa sorterazi dute"; Amezketaren eta Abaltzizketako alkateen aburuz, alde guztietatik indarkeri bat ikusten da eta parkean gauza gutxi ikusten dute baliagarri; Lazkaoko Udalak ez omen du ezer esatekorik, alde dagoenez gero eta Zaldibiakoak ez du parte hartu, akats teknikoren bategatik, gaia nahikoa landu gabe zuela aitortuz; Ataundik, berriz, oposizioak parte hartu du, alorrik kaltetuena nekazaritza litzatekeela argudiatuz. Aralar Parke Natural laister izendatzekotan bada ere, iritziz kontrajarriak badirela dirudi. Dekretuz horrelako gauza bat izendatzeak ondorio larriak ekarriko omen ditu, batez ere jabekideentzat.

Lazkaoko Maizpide Euskaltegiko ikasle eta irakasleek Mikel Lasa Altuna Beasaingo intsumisoarekiko elkartasuna adierazi dute, intsumisoen aurkako epaiketak direla orohar eta be-

ren lankidea denak martxoaren 23an izan zuenaren aurrean. "Gure gizartean gero eta errotuago dagoen intsumisioaren aldeko mogimenduarekin bat egiten dugu, soldaduskak eta orokorki militarismoak eragindako egoerek eta bultzatutako baloreek giza hartueman eta elkarbizitza libreari erasotzen dietela uste baitugu, eraso horren azalpenik garbiena gazte bakoitzak eta ondorioz bere ingurukoek pairatzen dutelarik, soldadugaia armadari zentzugarrikeri bat egiteko bahitua denean", diote besteak beste. Bestalde, Itsasondoko Udalak ere Goierriko Objektore Taldeak aurkeztutako mozioa onartu zuen ahobatez. Martxoaren 29an eta apirilaren 7an epaitzekoak ziren Iñaki Lasa Arza eta Xabier Iturrioz Oiarbide herrikideei elkartasuna adierazteaz gain, beste zenbait erabaki hartu ziren.

Lazkao, Beasain eta Ordiziako alkateek Garraio Ministeritzarekin izandako elkarrizketa oso positibotzat jo beharra dago, zeren konfirmatu egin da paso-nibela lurperatzeko lanak aurtengo bertan edo datorren urtearekin hasi daitezkeela. 500 eta 600 milioi arteko

kostua izango luke obrak, baina ha-
maika buruhauste sortutako arazoa ere
behin betirako lurperatuko genuke.



Atzo zela iruditzen bazaigu ere, urtebete daramagu Lazkao Txikirik gabe. Bere heriotzaren urteurren-eko meza bera, Joxemiel Iztueta zenari eskeinitako omenaldi ere izan zen, eliza leporaino beteta egon zen. Bere senideak museo txiki baten antzera ipini bide dute Abaliñeko jaiotetxea urtebete honetan; Aita Antonio Zavala, berriz, lazkaomenditarraren bertso eta txisteak biltzen ari da, bilduma batean Durango Azokarako argitara emateko. "Sendoa" argitaletxeak plazaratzen duen Auspoaren sail nagusian joango lirateke goierritar bertsolariaren pasadizoak eta xelebrekeriak. 40 bertsolarien testigantzak izango dira liburu horretan. Bilketa lanetan Laxaro Azkune Loiolako irratigizona dabil.

Ordiziako inguru-
etako txi-
mistor-
ratz erra-
diaktiboak
apirilean
erretira-
tuko dira.
Maiatzean,
berriz,
geratzen
direnak.
Hara non
dauden:

Ataun, JMBarandiaran eskola; Beasain, Murumendi eskola eta Hunolt fabrika; Idiazabal, Iparragirre eskola; Itsasondo, parrokia; Ormaiztegi, San Andres eskola; Segura, Laiotz eskola eta Zaldibia, Bilore.

BEASAIN. 1.700 bat miloietako irabaziak izan bide ditu CAFek 93ean. Duela gutxi irten da Mexikorantz hango metrorako eginiko lehen unitatea. Aurten gainera 252 miloitako dibidendoak banatuko ditu akzionisten artean. 10 urte ziren hori ez zela gertatzen. Bestelakoa da Indar-en egoera "Egin"en esanetan: 3.000 miloitako zuloa omen du bere gain, salmentak gelditu eta ondorio negatiboak azken urteotan. Zuzendaritzak soldaten masaren errekortea eta 42 langileen eszedente berria proposatu omen du.

Usurbe zinema-antzoki berria urte bukaerarako martxan jartzeko moduan izango zela zekarten komunikabideek orain dela gutxi. Gipuzkoako onenariak izango den antzokia hornitzeko Donostiako Kultura Patronatuaren laguntza izan du eta hitzarmen bat sinatu zuten Patronatu horretako Gurutz Larrañaga, eta Jose Luis Arriola alkatetik. Erakunde horretako teknikoak diren Javier Sabadie eta Jose Luis Rebordinosek ikertu dituzte Usurbe berriaren premiak eta antzoki bat ondo hornitzea oso garrantzizkotzat jo zuten, baldin eta ezpadira hipotekatu nahi bertan egin beharreko ekintzak. Dena den, badirudi zorte onik ez duela Beasaingo zinematik: tramoiaren instalakuntzak eraikuntzak dituen akatsak azaleratu ditu. Arazoa konpontzearen teiltatuaren zati bat desmontatu beharko da... Atzerapena berriz, beraz.

Usurbe mendiko errepi-kagailuak sortzen dituen seinale-itzalen arazoari uda aldera emango zaio soluzioa: mikro-errepikagailu bat jarriko da Txindoki Institutuaren alboan. Bestalde, Igartzako igera edo errota "lehengoa" izatekotan omen da: Aranzadi Zientzi Elkartearen ardurapeko 40 gaztek kanpolana egingo dute bertan abuztuan.

"Beti-Bizi" elkarteak antolatutako "Beasain jaietan" 13. idatz-lehiaketan honako OHoko ikasleak suertatu dira irabazle: D ereduan: Iñigo Igartua, Maitane Fernanaino, Idoia Imaz, Uxune Apalategi. B ereduan: Migel Anjel Blanco, Gema Mujika, Begoña Sanchez, eta Ana Vanessa Rodriguez.

LEGORRETA.

Martxoak 26an ekin zitzaion herriko Kultur Etxe berriaren inaugurazioari. Segurako Kriseilu txistulari taldea, Maria Jesus Aranburu Aldundiko kulturako diputatua eta Patxi Plazaola, Jaurlaritzako kultura-ordezkaririk legorretarra izan ziren ekintzetan. Bitxia, Maria Jesus Aranburu garai batean andereño izan zuten Legorretako ikastolan.

MUTILOA. Herri hau arazo handiak jasaten ari da urarekin, Troia meategia udan itxi zenez geroztik. Aurrez, meategiak ura bonbeatzen zuen

A ze flaxa !

Orendain tekila



herria hornitzeko baina orain hilabete pare bat bonbeatzeari utzi zion. Alkattea den Joxe Lekuonari esker, bere ur-tresneri berezia martxan ipini duela, oraingoz ba dute urik mutiloarrak, baina irteera behin-behinekoa da, ez oso segurua eta beste irtenbide batzuk bilatu beharko dira.

SEGURA. Ostegun Santukoa ez bezala, Prozesioko desfilea ez zen elizaz kanpora atera Ostiral Santuan euria zela eta.

Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

IBAI - ONDO

**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antiziar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfnoa: 88 21 49 BEASAIN

Beasaingo Txindoki Institututuak 25 urte

***"Txindoki" Batxilergo
Institutuaren 25. urteurrena
ospatzen den honetan,
bertako zuzendaria den Josu
Agirrerengana jo dugu,
ospakizun hori dela eta,
Institutuaren eta ospatuko
diren ekintzen berri eman
diezagun.***

G.- Nola definituko zenuke Txindoki Institutua?

E.- Beno, herri ikastetxea da, hau da publikoa; gure inguruko beharrei erantzun egokia ematen saiatzen dena, eta beharrezkoak diren egokitze, eguneratze eta birmoldatze saioetarako etengabe prestatzen ari dena.

Beasainen kokaturik dago, sorreratik bailara osoaren hezkuntza beharrei erantzuna emateko sortua. Eta azkenik, kontutan izan behar dugu, Beasaingo ikasleek gain, Ataun, Lazkao, Idiazabal, Ormaiztegi, Zegama, Segura, eta inguruko beste herri batzuetakoak ere badituela.

G.- Zein da gaur eguneko egoera, zer irakasten da Txindoki Institutuan?

E.- Gaur egun, nagusiki BBB eta UBI

ematen dira, gutxi gora-behera 450 ikasle ditugu ikasketa mota hauetan matrikulaturik. Hauetaz gain, IEEko lehenengo zikloa ere ematen dugu, batzaz beste 50 ikasle ditugularik. IEEko taldeetan integraturik hezkuntza bereziko 6 ikasle ere baditugu.

G.- Eta hizkuntz ereduak dagokie-nez?

E.- Ikasturte honetan ikaslegoaren erdia A ereduari ari da, eta beste erdia B eta D ereduari. Hala ere, argi dago egoera erabat aldatzen ari dela. Esate baterako, UBI nautatik hiru A ereduari matrikulaturik badaude ere, BBBko lehen ikasturtean nautatik bat bakarra da A ereduari ari dena, besteak B eta D ereduari ari direlarik. OHOk ikastetxeetako egoera ikusirik, jadanik A eredurik ez dago, laster B ereduarekin batera D eredu indartsua izango dugula aurriku daiteke.

G.- Irakaslegoaz zer esan diezaguke-zu?

E.- Institutuko irakaslegoak, berrogeitik gora, aldaketa handiak izan ditu ikastetxea martxan jarri zenetik; has-teko, gaur egun, irakaslegoaren zatirik handiena finkoa da; bestalde, bertakook geroz eta gehiago gara, eta eus-

karaz dakigunok ere bai; eta azkenik, erreformari begira lanean gogor ari gara.

G.- Zer-nolako baliabideak dituzue?

E.- Azken urte hauetan inbertsio garrantzitsuak egin dira ikastetxean. Alde batetik, ikastetxearen egoera orokorra hobetu nahi izan da, izan ere 25 urte ez baitira alferrik iragan; eta bestetik, erreformari begira egoitzak eta ekipamenduak egokitzeko saio garrantzitsuak egin dira; besteak beste, teknologiarako tailerra, Espresio Artistikorako tailerra, bi informatika gela (ekiporik berrienez hornituak), hiru laborategi (arlo bakoitzerako bana), liburutegia, gimnasialekuak...

G.- Autonomi gestioa ere lortu omen duzue. Zertan datza hori?

E.- Iaz 20 ikastetxeri autonomi gestioa izateko aukera eman zitzaigun; guk, jakina, atsegin haundiz onartu genuen.

Funtsean, lanarigoa eta obra handiak izan ezik, gainerantzekoaren kudeaketa ikastetxearen esku uztea da; hau da, funtzionamendu gastuak, ekipamendua, altzariak, obra txikiak,...

Horretarako, urte hasieran kontzeptu horiek guztiak biltzen dituen diru-

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



ARANDIA

Garajea

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g

Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa

OLABERRIA

GOIERRITARRA



88 96 12

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA

Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

sarrera egiten zaio ikastetxeari, honek berak egokien iruditzen zaion eran kudea dezan. Urte amaieran Hezkuntza Sailari diru- erabilpenaren laburpena igortzen zaio. Arlo honetan izan dugun esperientzia aztertu ondoren, esan beharra daukat oso onuragarria gertatu zaiola ikastetxeari. Gure balantzea oso positiboa da, nahiz eta lan aldetik askoz ere gehiago egin behar izan dugun.

G.- Etorkizunari begira, Hezkuntza Sistemaren Antolakuntza Lege Nagusia (LOGSE) dela eta, nola ikusten duzu ikastetxearen geroa?

E.- Lehen ere esan dut irakasleago ahalegin berezia egiten ari dela erreformaren berrikuntzetara egokitzeko. Epe laburrean LOGSE Batxilergoen ezarpen aurreratua egitekotan gara, eta hori datorren ikasturtean bertan indarrean jarri nahi dugu, etorkizuna lantzen oraintxe bertatik hasi nahi baitugu. Berrikuntza garrantzitsuak ekarriko dituelakoan nago. Gai amankomunek orain artean zuten indarra galdu egingo dute, hautazkoen edo optatiboen mesedetan. Hauei dagokienez, berriz,



gure artean ezezagunak zirenak plaza- ratzeko asmoa dugu: Teknologia industrial, Laborategi teknikak, Psikologia, Zuzenbidea,... Honen ondotik, berriz, moduloak etorriko dira.

Hau guztia kontutan izanik, ezinbestekoa da eskualde mailan, herri ikastetxeak (publikoak) garenon artean

behintzat, eskeintza bakarra egitea, eta nere ustez, lortuko dugu.

G.- Beno, haserako gaiari helduz, zer-nolako ekintzak antolatu dituzue 25. urteurrena ospatzeko?

E.- Guztiak hemen aipatzea ezinezkoa da, era askotakoak antolatu nahi izan ditugu: kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak, ikusentzunezkoak, Txindokiren eguna (Txindokira irteera), bazkaria, F. Mitxelenari omenaldia,...

Ekintza ezberdinei buruzko informazio zehatza agendan aurkitu ahal izango duzue; dena den, maiatzaren 7an egingo den bazkarirako deia luzatu nahi diegu institutu honekin nolabaiteko harremana izan duten eta duten guraso, ikasle, irakasle eta gainerantzeko guztiei.

(Informazio gehiago nahi duenak jo beza Institutuko bulegoetara).

 **Gabino MURUA**

Milaka ikasle ikusia

1968. urteko urrian inauguratu zen ikastetxe hau. Garai hartan ez zegoen inguruan batxilergorik irakatsiko zuen beste ikastetxerik, zenbait akademia izan ezik, eta batxilergoa egin nahi zutenek kanpoko ikastetxeetara jo beharra izaten zuten, gehienetan interno. Arrazoi honengatik, Beasaingo Udalak, eta bereziki garai hartan alkate izan ziren Paul Hunolt eta Francisco Telleria jaunek, ahalegin berezia egin zuten Institutuaren sorreran, bailarako kulturari bultzada han-

dia emanez eta herritarrei unibertsitaterako bidea irekiz.

Honela, Juan Jose Zunzunegiren sendiak udalari emandako sailean eraiki zen ikastetxea. Lehen bi urteetan Eibarko Institutuaren menpe egon zen eta ireki zen urtean 350 ikasle inguru matrikulatu ziren.

Ikastetxe honek izan zuen harrera izugarria izan zen, eta honen lekuko da, hain zuzen ere, 1973. urtean eraiki behar izan zen bigarren edifizioa, garai honetan izena emandako ikasleak 1.200 baino gehiago baitziren.

 **inlingua**
hizkuntzak

INGELES, ALEMANIA, FRANTSES ETA ARABIERA
Matrikula zabalik
Jatorrizko irakasleak
Maila guztiak


J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA

“Biolur” Gipuzkoa

Ez da erraza nekazaritzaren gaur egungo egoera: inbertsio handiak; produktibitate eta intentsifikazioa bultzatuta; lurrari, landareei eta abereei epe motzengatik etekin handiena kentzera bultzatuta; ongarri eta botikaren erabilpenarekin izutzen hasita... eta hala ere ezin bizimodurik atera nekazaritzatik, alderantziz baizik: gero eta hestua.

Ez da bakarrik hemengo egoera, mundu osokoa baizik, gizartearen “garapena” nekazaritzaren (eta lurraren) bizkar egin da eta egiten ari baita oraindik, naturaren legeak errespetatu beharrean lantegiko arauak ezarri nekazaritzari. Nekazaritza egokiago baten aldeko aldarrikapenak aspalditxo hasi ziren Europan: Nekazaritza biodinamikoa Alemanian (1922), Nekazaritza organikoa Ingalaterran... eta laguntza “ofizial” haundirik gabe (oztopoa sarri) zabaltzen eta indartzen joan da poliki-poliki.

Hemen bertan ere, badira urte batzuk nekazari gazte batzuk elkartzuz, lehen ahaleginak egin zirela, baina oraindik haize hauek iristeke zeuden Adminis-



traziora eta ez zen ezer mamitu. Duela 3 urte ere beste saio bat jo zen, baina ez zuen gorputzik hartu. Azken 3 urteotan lehengo esperientziak bilduz eta nekazaritza biologikoari buruz egin diren ikastaro, hitzaldi eta bidaiei esker proiektu hau mamitzeko beste jende bat bildu gara. Nekazariak, teknikoak eta beste zenbait laguntzaile elkartu

ahal izan gara asmo berdintsu batekin: lurraren emankortasuna eta oreka zainduz, kalitatezko barazki, fruitu, e.a. neurri egoki batetan produzitzea, nekazaria ere duin bizitzeko moduan bere eginkizun hortaz.

Hilabete batzutako eztabaida ondoren 1993ko ekainean finkatu ziren estatutuak. Uztailan Zabalegin egindako Batzarrean onartu ziren Biolur Gipuzkoa izena emanez elkarteari, eta ondoren tramite burokratikoak bete ziren. Azkenik Diputazioak ere onartu zuen Biolur nekazari elkarte bezala eta kooperazio konbenioa abenduak 30ean sinatu zen.

Urte berriak ideia berria ekarri zuen: aldizkariarena eta udaberriak dakar lehenbiziko alea. Aurrerantzean ere, urte aro bakoitzak behar berea. Nekazaritza, nekazari eta kontsumitzaileen onerako izango delakoan gure ahalegintxo, gure ongi etorrikeri beroena!

“Biolur Gipuzkoa”, 1. zenbakiaren agurra

Publi-aholkuak

Estetikan, irtenbiderik ez duen arazorik ez dago

Guztioi gustatzen zaigu estetikoki geure buruarekin ondo sentitzea, baita besteei atsegitea ere. Estetikaz arduratzeak ez du esan nahi elegante, postmoderno edo beste tendentzi bat izan beharko genukeenik, baizik eta, bakoitzak bere estiloan, ahal dugun ondoen eta komodoen ibili behar dugula.

Gure irudia zaintzea oso garrantzitsua da; honekin ez dut esan nahi irudi on eta orekatu bat emateko, denbora guztian ispiluaren aurrean egon behar dugunik, eta gorputza arropa garestiz edota, eguberritako arbola baten antzera, bitxikeriaz beteta ibili beharko genukeenik. Ondo jakin beharreko gauza zera da, gorputza ederra egoteko eman behar den lehen urratsa garbitasuna dela. Bai barrutik eta bai kanpotik. Eli-

kadura sano bat eta kirol pixka bat egiteaz gain, oso garrantzitsua da gure azala behar bezala zaintzea.

Azal mota desberdinak daude, eta bakoitzarentzat badago tratamendu egoki bat, baina orokorrean, guztiok egin beharko genukeena zera da: Jeiki orduko, esne bereziaz azala ongi garbitu, tonifikatu eta ondoren krema hidratante bat eman. Eta gauean, ohera joan aurretik, gauza bera.

Baina tamalez, neurri hauek askotan ez dira nahikoa izaten geure gorputza eta irudia ongi izateko, bai adina eta bai beste faktore batzuegatik. Aknea adibidez, ile ugarien arazoa, zelulitisa..., eta zenbait arazotan profesional baten laguntza jotzen dugu gure arazoari esplikazio edo irtenbide bat aurkitzeko asmotan.

Guzti honegatik, estetizista batzu, zirujau estetikoekin elkarlanean hasi



gara, guri eskuetatik joaten zaizkigun arazoei irtenbide egokia emateko. Edonork kontsulta dezake edozein kezka edo konplexu.

Ana Kristina Olano,

Siboney estetika zentrua

Senpere Merkatal Zentrua

Tel: 881550-Beasain

San Prointzioen atariko kultur ekintzak

Lazkao Txikiren omenez, Saltsa Kultur Taldeak hilaren 15ean Bertso-saio batekin emango dio apiril honetako festa usaieko ekintza-sail bati hasiera. Polikiroldegian eta gaueko 9,30etan bertsolari hauek izango ditugu kantari: Andoni Egaña, Angen M^aPeñagarikano, Iñaki Murua, Xebaxtian Lizaso, Jexux M^aIrazu eta Maddalen Lujanbio. Hurrengo aste osoan, hasi 18tik eta 23ra bitartean Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartea eta Maizpide Euskaltegiaren artean antolatu duten kulturaldiaren barnean hainbat ekintza desberdinez gozatzeko aukera izango dugu. Hona egitaraua (ekintza pare baten faltan):

□ **Apirilak 18, astelehena:** Antzarren IV Bertso-paperen banaketa, Eskola eta Ikastolan.

□ **Apirilak 19, asteartea:** Diapositiba

emanaldia: "Artzainak, azken noma-dak" (Gema Arrugaeta); Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 7etan.

□ **Apirilak 20, asteazkena:** Diapositiba emanaldia: "Aizkorri mendilerroa neguan" (Batis Goikoetxea); Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 7etan.

□ **Apirilak 21, osteguna:** Bapateko Bertso-saio Gaztea. OHO-ko 6, 7 eta 8. mailako gaztetxoentzat.

□ **Apirilak 22, ostirala:**

* IV Gerriko Ikerlan Sarietako liburu aurkezpena, Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 8etan:

– "Klaudio Otaegi (1836-1890)". Pello Joxe Aranburu, Antton Idiakez, Marian Bidegain, Iñaki Rezola.

– "Migrazio-mugimenduak Olaberrian". Arkaitz Arruabarrena.

* Kantu afaria, Gerriko Txokoan, arratsaldeko 9etan.

Eta gainera, aste guztian zehar Argazki erakusketa egongo da Gerriko Tabernan ikusgai. Maizpide Euskaltegiko ikasle eta irakasleak aldizkari bat prestatzen ari dira, argitaratu eta banatzeko. San Benito Ikastolakoek berriz, Bertso-saio gaztea grabatu eta aurrerago irratiz emango dute. Eta behin 23ra iritsiz gero Udalak hartuko du txanda eta San Prointziotako ospakizunei ekingo die, 23an umeen egunaz hasi eta maiatzaren 1a bitartean izango da zertan eta zerkin gozatu... Baina oraindik garaiz gabilta eta horren berri hurrengo alean emango dugu, orduantxe egongo bait gara bete-bete festetan. Bitartean, kulturaldiak on egin diezazuela!

✍ **Mari Joxe Madariaga**
Argider Mujika

OLABERRIA

Mendi bizikletako lehiaketa

Olaberritar zaretenok, eta ez zaretenok ere, aukera aparta daukazue Olaberriko basoak bizikletaz zeharkatzeko: apirilak 17, igandean, mendi bizikletako lehiaketa bat egongo da. Udaletxeak antolatu duen trabesi honek 25 km. edukiko ditu eta goizeko 10.30etan hasiko da Iurre auzotik. Edozeinek parte hartu dezake proba honetan, bai federatuak eta baita federatuak ez daudenak ere. Izenemateak bertako fron-

toian egin ahal izango dituzue. Lehiaketa honek abituailamendu bat edukiko du eta ez da egongo sari banaketarik baizik eta materiala zozketatuko da partehartzaileen artean. Beraz, badakizue, bizikleta hartu eta hurbildu zaitezte gure herrira, pena mereziko du eta!

Etxebizitzetako buruzko inkesta

Orain dela gutxi herrian zehar inkesta bat zabaldu da ikusteko nolako

beharra dagoen etxebizitzak egiteko. Badirudi jende kopuru batek etxebizitzak egin nahi dituela Iurre auzotik gertu dauden eskolen alboan. Aipatutako inkesta aurkezteko epea apirilaren 16an amaitzen da eta orduan ikusiko da jendeak zer nahi duen.

✍ **Nagore Goiburu**

GOI ME
GOIERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA OSASUNAREN OINARRIA

* **Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!**
* **Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.**

Arrisku latza errepidean

Aste Santuko oporretako itzulerak berriro gogora ekarri digu Ataungo errepidean ibiltzearen arriskua. Egia bada ere Pazkoa bigarren eguneko trafikoa ez dela ohizkoa, antzekora hurbiltzen ari da hemendik aurrerarako igandetakoa, egunerokoaz ahaztu gabe. Eta kotxez ibiltzeak berak duen arriskuaz gain, eta bizikletazaleek errepide honetan ibiltzeko duten ausardiaz aritu gabe, oinezkoen abelera aikatu nahi genuke oraingoan.

Ataungo errepidean oinez (edo korrika) ibiltzea, bizitzari estimaziorik ez izatearen seinale bihurtzen ari da. San Gregorioko erdigunea eta San Martingo Bidebieta etxetik Gabillenera bitartekoa (kilometro bat eskas) dira herri guztian, espaloia duten errepide bazter bakarrak. Eta beste kilometro bat, Gabillenetik Arrondoraino, espaloia egitea onartuta dagoen zatia.

Eta hauxe da hain zuzen ere hizpide, eta ulertzen ez dena. Noiz arte espaloia berri hoi en zai? Proiektua egina eta onartua dago. Udala, lurak eskuratu eta berari tokatzen zaion dirutza kopurua-ren kargu egina da. Arazoa zera da: Diputazioak dituen aurrekontuzko mugak direla eta, atzeratua dagoela proiektua, udaletxera bidalitako idatzi baten Roman Sodupek berak dioenez.

Diputazioak inork baino hobeto eza-gutzen du Ataungo errepideko trafikoa

zenbaterainokoa den. Noizean behin Otadizelai inguruan errepidean zeharkatutako kable batzuk ere erabili izan ohi dituzte horretarako. Estadistika hoi en berririk ez dugu guk. Baina ziur gaude estadistika hoiei legozkiekeen istripu kopurutik ondo behera gaudela, zorionez. Eta arazoak hor dirau: Trafikoa geroz eta haundiagoa eta haundiren bat gertatzeko arriskua beste hainbeste. Bitartean, Ataunen bizi behar dugunok kotxeetatik babestu ezinik, etxetik ateratzeko beldurrez.

Zaharren heriotza

Juxtu duela bi hilabete, Ataungo zaharrenaren heriotzaren berri eman genuen hementxe. Bada oraingoan, haren ondorengo bi zaharrenak ere hil zaizkigula jakinarazi beharrean suertatu gara, zoritxarrez. Aralegi Berriko Manuela Sukia Amundarain, hilaren 8an hil zen 95 urte zituela. Patal xamar zebilela bagenekien, baina ustekabean harrapatu gintuen berriak. Eta bihar amunean berriz, Hospitaleneko Emeteria Korta Aierdi hil zen, 95 urte bete berriak zituela. Emeteria, Ordiziako Zaharren



Guztia ez da honela gure errepidean

Egoitzan bizi zen azken aldian.

Eta edozeinetara ere, herriko zaharrena izateak suposatzen duen ohorea, 94 urte dituen Bidebietako Maria Goikoetxea Imazek izango du orain. Urte askotarako Maria.

Intsumiso epaia

Iñigo Goikoetxea Mujika intsumisoari hiru hilabetezko kartzela zigorra ezarri dio epaileak. Besteak beste, denbora horretan Administrazio Publikoan lan egiteko debekua ere jarri zaion arren, Ataungo udaletxeko liburutegian segituko du lanean, udalak ez dio galaraziko eta. Kartzelara berriz, joan beharrik ez dauka.


 Joxe Begiristain

ARBOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



- Eskolarako gaiak
- Liburuak
- Jostailu Didaktikoak
- Fotokopiak
- Eskulanetako gaiak
- Egunkariak
- Aldizkariak
- Markuak, etab.
- Jaunartzetarako opariak

Egun euritsuak gozatu nahian

Aste Santua gora eta Aste Santua behera. Mila eta bat asmo ezberdin gogoan: eskiatzera, kanping-denda-ekin mendira, lagunaren baten etxera edo bizikletaz inguruak ezagutzera... Guztiok ere, 10 egunetako oporralditxoak ahalik eta gehien aprobetxatu nahi, baina posible izan al da? E.H.-tik irten zaretanok agian izango zenuten aukerarik, baina bertan geratu garenok? Ez dakit zer gertatzen den, baina gehienetan bezala jai hartu aurreko lan-egunak eguzkitsu eta apartak izan ziren eta jai-egunak ilun eta goibelak. Lehenengo egunetik ezarri ziren laino gizenak gure lurra- ren gainean eta egun bakar batez ere ez diote negarrari utzi. Kontuak kontu, eguraldiari muzin egin eta etxean egon zaretanok ez zenioten ba denborari alferrik joaten utziko ezta?

Egun euritsu hauetarako ez dakit Goierriko beste txokoetako egoera zein izango den, baina Idiazabalgoa



ez da hain txarra. Herri honek badu, besteak beste, aberastasun isil eta nahiko ezkutuko bat: Liburutegia. Haur eta gaztetxoaren artean ezaguna

da baina helduentzat oraindik zapaldu gabeko esparrua. Zer hobeagorik mus jokalditxo baten ondoan eta sukaldeko porru- salda usainaren inguruan liburu interesgarri bat baino? Euriak kristalean ateratzen duen hotsa eta irakurritako hitz bakoitzak sortzen duen doinua gure barnean elkar batzen dira arratsalde goibelak alaituz.

Honen inguruan, liburutegia suspertzeko talde bat sortu genuen herrian eta dagoeneko liburutegiari buruzko zenbait ohar biltzen dituen 1. "panfletotxoa" kalean da eta berehala izango duzue 2.a. Horrekin, gure asmoa liburutegiaren erabilpena areagotzea litzateke, egun euritsu eta ilunak eguzkitsu eta zoragarriak bihurtzea irakurleari.

 Aloña Galarraga

BEASAIN

"Ai Geala" Euskara Taldearen lehen pausuak

Euskararen erabilera kaskarrak kezkatuta, zenbait herritarren ekimenez, era honetako talde baten beharra ikusi zen herrian, eta horrela eratu zen "Ai Geala" izeneko elkarte, euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea helburu dituen. Azken bolada honetan "Ai Geala" euskara taldea ia mutu egon zaigu. Beste askori bezalaxe, oso zaila gertatu bait zaie hasierako indarrari eutsi eta jarraipen iraunkor bat ematea. Hala ere denbora ez omen dute guztiz alferrik galdu eta orain arteko isilune hau berehala haustekotan direla aitortu dute.

Honen froga dugu martxoaren 24an aurrera eramane zuten hitzaldia. Eguraldi kontuetaz aritu zitzaizkigun solasean Andoni Aizpuru gabiriarra, ETBko eguraldi-gizona, eta Aran-

tzazuko Pello Zabala. Tenporak, satelite artifizialak eta bitxikeria franko izan ziren hizbide hitzaldi bitxi honetan. Jendearen harrera berriz, ezin hobe izan zen. Gaia interesgarria suertatu zen nonbait eta, galderak egiteko orduan ere, bertan bildutako jendea ez zen atzera gelditu. Denbora motz gelditu zela esan genezake.

Hitzaldi hau izan dugu lehenengoa, baina ez da azkenekoa izango, hitzaldi desberdinen zikloa aurrera ateratzea bait dute helburu. Apirilaren 28an, iluntzeko 8etatik aurrera, Beasainek izan dituen azken lau alkateak biltzea da asmoa. Bakoitzak izan dituen esperientzia, arrakastak eta porrotak entzun ahal izango ditugu beren ahotik. Jendeak galderak egiteko aukera ere izango du oraingoan. Maiatza bukaeran, berriz, Goierriko

krisi ekonomikoaren nondik-norakoak entzuteko aukera izango dugu.

Hitzaldi hauetaz gain, herriko kirol elkarte desberdinekin harremanetan jarriak dira dagoeneko eta plangintza- ren bat burutzeko asmotan dira. Beasaingo jaietan ere ez omen dira geldirik egongo, txozna eta beste antolatuko dute. Gauza hauek oraindik zehaztu gabe badaude ere, asmo handiak agertu dituzte. Pentsakera desberdinak alde batera utzita, ahalik eta beasaindar gehien euskararen alorrean lan egiteko biltzea da "Ai Geala"ren nahia.

 Nekane Altuna

Manu Arizkorreta: 8. goierritar intsumiso epaitua

91.eko martxoaren 28an Jancan soldaduska egiteko agindua jaso ondoren, ezetza adieraztearekin eman zuen Gosatei Barreneko semea den Manuk intsumisioaren aldeko lehen pausoa. Ez zen izan ordea bapatean hartutako erabakia, aurretikakoak bait ziren gai honekiko zituen kezkak. Datorren maiatzaren 24ean epaituko dute Donostian.

GOIERRITARRA.- Zeintzu izan ziren soldaduskara ez joateko erabakia hartzera bultzatu zintuzten arrazoiak?

MANU.- Ikasketak zirela eta zenbait atzerapen eskatu ondoren, soldaduskara joateko agindua jaso nuen. Ordu-rako nere lagun asko soldaduska eginak ziren eta banekien zer zen hura, zer egiten den han. Banekien soldaduskan zer ikasi nezakeen eta, orduan bezalaxe gaur ere, bere baloreak pertsonarentzat erabat negatiboak direlakoan nago: disziplina itsua, jerarkizazioa, matxismoa, autoritarismoa, umilazioa eta irainak, denbora galtzea, e.a. luze bat. Gauzak honela, zertara joan behar nuen soldaduskara: beti egin delako, nere aitona esaten zuen bezala? Beste bide bat Ordezko Zerbitzu Soziala



egitea zen. Baina hau ez da gizarteak dituen behar batzu betetzeko sortua izan, ejerzittoa kuestionatzen duten gazteak zigortzeko baizik. Talde antimilitaristengana jo nuen, informatu eta soldaduskara ez joateko erabakia hartu nuen.

G.- Epaietarako deia aurrez-aurre izanik, nola ikusten duzu zeure burua?

M.- Banekien lehentxeago edo geroxeago epaitua izango nintzela, gainontzeko intsumisoak bezalaxe. Norbere konbentzimenduak sortzen duen

indarraz gain, gizartean geroz eta gehiago zabaltzen ari den jendearen apoioak asko laguntzen du; beraz, nahiko lasai hartu dut. Auzi honek ideia jakin batzu epaitzen ditu, militarismoaren aurkako eta gizarte juxtuago baten aldeko ideiak; hori dela eta, intsumiso bat epaitzen duten bakoitzean, kolektibo osoa epaitzen dute. Gure egoera eta ejerzitoaren aurkako jarrera jendeari nola-bait agertzeko erabiltzen ditugu epaietak.


G.- Zer diozu jendearen jarrerari buruz?

M.- Egia esan nahiko harrituta nago. Jende askok galdetzen dit nere egoeraz eta animo ugari jasotzen ditut. Oso gustora. Herrian adibidez, epaietaren aurrean zenbait ekintza burutzeko laguntza talde bat osatu da, gazte eta helduak daude, datu izugarri pozgarria da hori. Izan ere, intsumisioa, soldaduskarako adinean dauden mutil gazteez gain, gizarte osoari era batera edo bestera ukitzen dion gai jakin honi fronte egiteko mantentzen den jarrera bat da.

Arantxa Goiburu

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.

Eskolaumeek antzeztutako antzerki saioa



Antzezleak antzerki saioan murgildurik

Herriko eskolaumeek, Jaurilaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak eman ohi duen dirulaguntza dela eta, urtero prestatu ohi dute antzerki saioen bat urte amaieran edo, herrian bertan eta inguruko beste zenbait eskolatan antzezteko. Aurtengo ikasturte honetan antzeztu duten lanaren izenburua "Txibistoren erbia" izan da eta 3 lekutan

antzeztu dute: Idiazabalgo herri-eskolan, Ormaiztegiakoan eta aurretik, martxoaren 26an, herriko Kultur Etxean. Antzezleak herriko eskolaumeak dira, 20 guztira, 3 urtetik 10 urte artekoak.

Herrian antzeztutako

saioari dagokionez, dotore asko aritu zirela esan behar eta jendearen erantzuna ere bikaina izan zela, herritarrek atsegin haundiz ikusi zutelarik euren seme-alabek burututako lana. Aurretik ere horrelako saioak bultzatu egin behar dira, eta ahal izanez gero, urtean pare bat saio antzeztu gainera; izan ere Gabirian antzerkirako zaletasunak ondo errotuak baititu bere sus-

traiak gerra ondorengo garai haietan izan zuen bultzadari esker. Zorionak antzezteko gazte horiei eta zer esanik ez hauek prestatzen aritu diren maisu-maistrei.

Bertsolari Gazteen Txapelketa

Apirilaren 16an, larunbata, eta Kultur Asteko ekintzen barruan ospatuko da XXIII Bertsolari Gazteen Txapelketa. Txapelketa honetan parte hartuko duten bertsolariak honako hauek izango dira: Iñaki Zelaia eta Unai Agirre, Hernanikoak; Mikel Aranburu, Beasaingoa; Andoni Larrañaga, Azpeitiakoa; Paulo Zuberriola eta Andoni Otamendi, Lasartekoak. Txapelketa hau, urtero bezala, Osinalde elkartearen izango da eta saioaren aurretik, arratseko 9etan, aforia izango da. Saioa bera gaueko 11 aldera hasiko da. Afarirako txartelak Ostatu jatetxean edo Eusebio Igarzabali 884259 telefono zenbakira deituz lortu ditzakezue.

 Gabino Murua

ORMAIZTEGI

Mus txapelketaren berri

Aurreko hilean Jubilatuen Egoitzan jokatu zen mus txapelketaren berri emanez hasiko dugu kronika hau. Dextenteko partaidetza eta giro polita izan zituen txapelketa honetan, Fausto Gurruixaga eta Santi Izagirre izan genituen irabazle. 2. Joxe Mari Goikotxea eta Martin Alberdi. Esan beharra dago orokorren zaharrak nagusitu zitzaizkiela gazteei: azeri zaharrek laster egin zituzten oilar gazteekikoak. Akaso etxean jokatzen zutelako izango zen. Entzun dut, ordea, gazte batzuk gogor ari direla entrenatzen hurrengo aldirako.

Futbito txapelketa

Apirilaren 15 eta 16an 24 orduko futbito txapelketa izango dugu Ormaiztegin. Partiduak Zubipe frontoian jokatuko dira, eta etxean zer egin ez

dakiela dagoenak edo hona zerbaite-tara inguratzen denak aukera polita du. Anbienterik ez da faltako. Esan behar da, gainera, txapelketa hau herriko Gazteen Batzordeak antolatu duela. Sortu zenetik gauza dextente antolatu ditu batzorde honek: mendiko txangoak, mountain-bike irteerak, mus txapelketa, eta orain futbito txapelketa. Entzun dugu, baita ere, aldizkaritxoren bat edo ateratzekotan ote diren. Aspalditxoan ez zen horrenbesteko mugimendurik herrian.

Eliza berritzeaz

Guztiok ikusia izango dugu honez kero sakristi ondoan jarri duten kartel handi dotorea. Berritze lanak, ordea, ez dirudi oraindik pixka batean hasiko direnik. Hala aitortu digute behintzat parrokiko arduradunek. GOIERRITARRAren hurrengo zenbakietan izango

dugu horri buruzko informazio gehiago.

Zaborrak edonon?

Gabiri aldera paseatzera kamino zaharretik joan ohi denak jakingo du zeri buruz ari garen. Bide horretan, lehenengo km.aren inguruan, kaminoaz azpiko aldera, zabortege inkontrolatu bat zegoen aspalditxotik. Po-teak, botilak, plastikoa, traste zaharrak... zer ez ote zegoen zulo horretan! Orain inguru hori txukunduta dago. Aldundiak ordainduta bi errekek garbitzera etorri zen langile taldeak garbitu du zabortege hori ere. Ea berritoki zikindu gabe mantentzeko gai izaten garen.

 Iñaki Amundarain

“Jan Da Lo Z” txapeldun

Apirilaren 10an, eguzki izpiak lagun izanik, larunbateko kontsolazio finalean ez bezala, jokatu zen kuadrilen arteko futbol txapelketaren finala. Bertan “Baldarrak B” eta “Jan Da Lo Z”koak aritu ziren lehia bizian txapel-dunaren sari preziatua eskuratu nahian. Norgehiagoka gogor baten ondoren “Jan Da Lo Z”koek lortu zuten garaipena 3-2ko emaitzaz.

Larunbatean berriz, “Zurrut-Olaso”koak suertatu ziren garaile kontsolaziozko finalean, azken momenturainoko emozioz, penalti puntutik bota behar izan zuten eta, 3-3ko berdinketara heldu ondoren. “Jan Da Lo A” taldeko Jabi Mujikak txapelketako gol gehien sartu duenaren saria eskuratu zuen eta “Jan Da Lo Z”ko “Txiki”k finaleko jokalaria hoberenarena. Urtero bezalaxe aurtengoan ere zorigaitzaren sariak izan du bere lekua, sari hau Ion Zubeldiari egokitu zaio.

Honako hau da azken sailkapena: **1.:** Jan Da LO Z; **2.:** Baldarrak B; **3.:** Jan Da Lo A; **4.:** Izkilimili II; **5.:** Txitxi-zotz; **6.:** Izkilimili I; **7.:** Kabi; **8.:** Hontzak. Kontsolazio sarirako borrokatu dutenen arteko sailkapena berriz: **1.:** Zurrut-Olaso; **2.:** Ezereza-Estanko; **3.:** Baldarrak A; **4.:** Mase-Team; **5.:** Eta Abar; **6.:** Gautxoriak.



Liburutegia

Liburutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera irekiko da eta Setatik 8etara bitarteko ordutegia izango du. Zortzirehun bat liburuko kopuruarekin eman dio hasiera Liburutegiak eta liburu mailegutzat egin daiteke.

“Babalu! Babala!” antzeslana

Datorren Apirilaren 23an arratsaldeko 4etan Usurbilgo Hika Antzerki

Taldeak eskainitako “Babalu! Babala!” kale antzeslana ikusi ahal izango da Legorretako Korta eta Zapas Enparantzan. Haurrentzat batik bat oso ikusgarria izango den kale antzeslan honetan haurrak bihurtuko dira bertako protagonista.

Xabier Glez. Ezama



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



OLANGUREN INSTITUTUA

“Ikastetxe euskaldun integratzaile eta publikoa”
IKASKETA ERTAINETAN ESPEZIALISTA
Erabat euskaldun eta dohainekoa

Izenemateko epea maiatzaren 4tik 18ra
☎ 880862-66 **ORDIZIA**

□Rugby Taldeak, Altamiran baimenik gabe entrenatzen hasi berria zela, apirilak 7an ezusteko berri ona jaso zuen Udaletxetik, Altamirako futbol-zelaia erabiltzeko aukera, alegia. Badirudi, beraz, luzaro dirauen arazo honi behin-behineko irtenbidea topatu zaiola.

□Euskara Taldea bere lehen pausuk ematen ari da sorrera bidean. Bilerak eginez segitzen dute, beren lana 3 arlotan sailkatzen dela: estatutuak, bazkide zabalpena eta antolaera. Egindako lanaren informazioa eman zuten martxoak 22ko bileran eta apirilak 29rako beste batzar baterako deia egiten diete ordiziar euskaltzaleei: Barrenan, 19,30etan.



□Martxoak 25an amaiera eman zitzaion Elkartearteko XV Mus Txapelketari. Irabazleak Boxing-eko Antxon Zubeldia eta Aitor Imaz izan ziren; merezimendu osoz nagusitu zitzairen Larrunarriko Mikel Jauregi eta Mikel Matek osatutako bikoteari.

□Udal-antolaketa eta lanpostuen ba-

lorazioa ikertzeraz doaz 6 hilabetez psikologian lizentziatutako bi lagun. Udalak nola antolaturik dagoen aztertu nahi da (organigrama eta jerarkia) alde batetik, eta bestetik, bertako langileen funtzio eta eginbeharrak, dagoen soldata jasotzen duten, gabeziarik edo gehiegizkorik ote dagoen jakin, e.a. Diagnostikoa egin ondoren, plan teamenduak etorriko lirateke.

□Euskal Dantzarien Biltzarrak eskainita, Udalak Gipuzkoako helduentzako I Aurreku Txapelketa antolatuko du. Honekin aurrekuak Ordizian garai batean zuen zaletasuna eta tradizioa berpiztu nahi da. Babesle baten bila dabilta oraindik, eta ez dago data zehatzik. Txapelketaren antolaketak 800.000 pztako aurrekontua du.

□Enerio-Aralarko Mankomunitatea gestionatzen duen "Ekos" enpresak Barrenatik Dorre-etxera pasako dela aditzera eman du. Lehenagoko ordu-tegiak mantenduko ditu, ordea, asteazkenero 9etatik 11etara. Enpresa berak gestionatzen duen Oianguren Ingurugiro Eskolatik, berriz, 3.000 lagun pasa dira sortu zenetik. Eskolako monitorea diren Belen Zelaia, Esteban Egi-

legor eta Elena Oiarbidek esan duteenez, aurtan 1.200 ikasle inguru bertaratuko dira.



□Barrena Kultur Etxean dago ikusgai hilak 20a arte Ekologia eta Kontsumoaren feria. Erakusketa ikusgarri hau Eroskik antolatu du eta Sasieta Mankomunitatearen eta Udalaren kolaborazioa ere izan du. Feria honen helburua, Sasieta Iñaki Erauskinen hitzetan, nolabait ekologia etxera hurbiltzea; etxeetan sortzen ditugun zaborren, kontsumitzen ditugun uren datuak ematen zaizkigu eta baliabideak modu egoki batean nola erabili daitezkeen erakusten zaigu. Bertan ikusentzun liteke energia nola aurreztu daitekeen, ingururugiroari errespetu izanez.

 Aitor Calvillo eta JMA

DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

albisu
KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

Ordiziako Saskibaloit Taldea

Ordizian, saskibaloia buruz hitzegitean, ezinbestekoa da Ordiziako Saskibaloit Taldea aipatzea. 94-95 denboraldian bere 25. urtebetetzea ospatuko du. OSTa 6 taldez osaturik dago; guztiak federatuak, 5 talde mutilez osatuak eta 1 soilik neskez. Mutiletan, infantilak 14 urte bete arte, kadeteak 16 arte, jubenilak 18 arte; honen ondoren bi aukera: zuzenean seniorretara pasa (2. dibisiara) edota 18-23 urte artekoen taldera. Nesken taldea, infantilak, 14 urte arteko neskatilak biltzen dituena da. Denetara 80 bat lagunek hartzen dute parte: jokalaria, entrenatzaile, laguntzaile...

Taldearen gunea Majori Polikiroldegia da, hemen egiten du bere bizia, entrenamenduak, partiduak jokatu, e.a. Hala ere, bere historian zehar egon da funtzio hori bete duen beste leku bat: Beti Alai pilotalekua. Aldaketa honi garrantzi handia eman behar zaio, ez baitzen jokatzeko lekuaz soilik aldatu, baizik eta gure historiaren zati bati amaiera eman baitzitzaion. Aldaketa, taldean urte asko zeramatzaten jokalaria gehienetan joanarekin bat etorri zen gainera. Pilotalekuan 90-91 arte jokatu zen. Bertako giroa zoragarria zen etxean jokatzeko taldearentzat; guztiz kontrakoa kanpotik zetorrenarentzat: bertako jarraitzaileek sortzen zuten giro berezi horrek etxeko taldea garaipenera bultzatzen zuen.

Majorik bere abantailak eta eragozpenak ditu. Instalazioak erosoagoak dira, partiduak jokatzeko direnko pistak ere kalitate hobea du, baina jendea jokariengandik urrutiago dago. Zaleek gehiago suposatzen zuten pilotalekuan polikiroldegian baino. Hala ere, Majoritik irten dira egun OSTa osatzen duten jokalaria gehienak, eta espero dezagun horrela izaten jarraitu dezala. Bietatik hainbat jokalaria ezagun pasa dira, hoietatik famatuena 92ko abenduan gure aurka jokatu zuen Brasileko selekzioa izanik. Era berean, urteetan zehar izandako lorpenak ezin ahaztu



Brasilgo selekzioaren batera Ordiziako saskibaloilariak

eta hemen ditugu batzu: 3. dibisiaren 1. postua; Jubenil eta Junior mailetan Gipuzkoako txapelketa; Junior mailako Euskadiko Txapelketa 2. postua.

Aurten lortu diren emaitzak ikusitean, esan genezake bide egokian dihoazela. Nesken taldeak maila igoera lortu du, mutilen infantil taldeak txapelketa bezala amaitu du, eta mutilen senior taldeak gure historian lehen aldiz 2. dibisioko A-1 multzoan sartzea lortu du. Aurreneko fasean parte duten 20 taldeetan lehen 10ak osatzen dute; hauetatik lehenengo 2ak geratzen direnak 1. dibisiara igoko dira. 2. dibisiara, gure multzoan Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxako taldeak parte hartzen dute. Profesional eta amateur arteko muga dagoen kategori bat bezala defini dezakegu. Talde batzuk, goragoko dibisiotan jokatu izan duten zenbait jokalaria kontratatzen dituzte igoera lortzeko asmoz (adib.: Loiola Indautxu, Patronato, Arrasate, e.a.). Azpimarratzekoa da gure jokalariek ez dutela inongo dirurik kobratzen. Saskibaloit taldearen ezaugarri bereziak jokalarien arteko adiskidetasuna da. Gainera, jokalaria guztiak harrobitik irteerakoak dira, ia

denak ordiziarak, ataundar bat eta beste aramar bat ezik.

Apaltasun filosofia hori jarraituz, partiduetan ez zaio sarrerarik kobratzen ikuslekoari. Hortik sortzen zaizkio OSTari arazo larrienak, gastuak finantzatzeko behar den diru lortzeko orduan. Urteroko aurrekontuei aurre egiteko, era ezberdinetako aktibitateak egiten dira: publizitate kartelak, bazkide txartelak, laguntza partikularrak eta instituzio publikoen dirulaguntza. Azken hau ez da nahi bezainbatekoa, aurrekontuaren %15a bakarrik estaltzen baitu. Gastuetan, talde ezberdinen ekipaia, kirol materiala, polikiroldegiko txartelak, epaileei ordaindu beharrek... Bidaia auto partikularretan egiten dira, autobusen alokairua garestiegia bait da.

Amaitzeko, gure helburuak: batetik, kirol mailan ahal den neurri hoberean jarraitzea eta, bestetik, helburu sozial bat betetzea, hots, gazte jendea kirolerara inguratu, beste inora hurbildu ez dadin; adibidez, drogetara, alkoholera, e.a.

 **Jaime Leturia**

Izurri Berria, Rokanrol Berria

"Izurri Berria" Beasain eta Ordiziako 5 mutilek osatzen duten musika talde bat dugu. Denak batera daudenetik 2 urte bakarrik igaro arren, ez zaie aurrera jarraitzeko gogorik falta.

Baterian, Gorka; kitarrak, Riki eta Enrike; baxua, Asier eta ahotsa Eneko. Hasieran gauza nahiko arina bazen ere, orain hoby bat baino gehiago dela airtortzen dute: "Talde hau serio hartzen dugu, bai, baina aldi berean ondo pasatzea ezinbestekoa da guretzat. Geure arteko giroa paregabea da, eta helburua aurrera jarraitzea da, dudarik gabe: hau da, maketa bat ateratzeak dakarren esfortzua egin, eta gero jende artean zernolako harrera izango duen ikusi".

Izurri Berriak jotzen duen musika Rock bezala definitu daiteke, baina muga hori baino zabalagoa da. Estilo bat baino gehiagotan jotzen dute, beti ere ugaritasunak aberastasuna baitakar. Oinarrizko akordeak erabiliz, musika gehienbat Enrikek konposatzen du, bera baita solfeo pixka bat dakiena. Abes- tien letrei buruz galdetzean, zera diote: "gizarte ez demokratiko eta ez justu honen aurka pertsona ugari dago eta guk, nolabait esateko, hauekin bat egiten dugu, gure letrak kritika sozial bihurtuz.

Geure taldean ere badaukagu arazo bat: Eneko intsumisoa da eta "Justiziak" gaur egun duen jokaerarekin aurki ahotsik gabe geratu gintezke".

Gorkak eta Enekok idatzi dituzte abesti batzuk, beste batzuetan ordiziar poeta baten poemak kantatzen dituzte.

Dirulaguntzarik ez dutenez, musika tresnak bakoitzak bereak ditu. Han-hemenka jotako kontzertuetan ateratako diruaz eta bakoitzaren poltsikotik jarritakoaz, erosi ahal izan dute gaineratiko ekipoa. Ekinaren ekinez eta zenbait orduren poderioz ikasi dute instrumentuak jotzen. Gorkaren aitaren garajea prestatutik duten txokoan aritzen dira jo eta jo, baina ordutegi zehatzik gabe: "ahal dugunean jotzen dugu, beti ere goikoak endredatuko ez ditugun ordutegian".

Soinu "kañeroak" erabiltzen dituztenez, aski dute zorte pixka bat merkatu



horretan indarrean sartzeko. Agian, oraindik oso ziurra ez bada ere, hurrengo kontzertuan "Reincidentes"ekin batera joko dute, hemen, Goierri aldean. Beraien gustoko taldeen artean Reincidentes, Parabellum, La Polla Records, Toy Dolls, e.a. daude. Ea hauetako edozein bezain ezagunak egin eta izurritea zabaltzen den bezala hedatzen zareten!

(Izurri Berriarekin traturik egin nahi ezkerro dei telefono hauetara: Gorka, 880748; Asier, 881791; Enrike, 887078; Riki eta Eneko, 881573).

 Estitxu Imaz



ZURE KIROL PRAKTIKA MAJORI-rekin ORDIZIAN GAITUZUE

Honako zerbitzu hauek ditugu:

Pabiloia, Rokodromoa, Gihar lantze aretoa, Igeritoki girotuak, Gimnasioa, Squash, Tenisa, Padle, Sauna, Izpi ultramorea, Hidromasaia, Kirolmasaiak eta Terapeutikoak.

Talde Zuzenduak:

Aerobikan, Mantentze gimnasia, Ginjaza, Gihar lantzean, Judoan, Igeriketan, Zaharrentzat gimnasia eta Haurrentzat igeriketa.

Majori Polikiroldegia, Altamira auzoa z/g

Tel.: 889333 / 53 ORDIZIA

KEMEN KIROLAK



**GRUPO
VITALICID**


SEGUROS BANCO VITALICID NACIONAL HISPANICA
VITALICID PERSONAS

ASEGURUAK

Esteban Lasa,3 160486 BEASAIN

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa